

Nekazaritzako elikagaiak Kanal Laburretan Merkaturatzen duten ekoizle-elkarteentzako 2026ko laguntzak.

Oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzen deialdia onartzen duen [128E/2026 Ebazpena](#)ren laburpen egituratu eta sinplifikatua da honakoa. Informazio eta araudi guztia [esteka](#) honetan aurkituko duzu.



ZER DIRA LAGUNTZA HAUEK?

Honako helburuak dituzte:

- **Kanal Laburren** bidez nekazaritzako elikagaien salmenta sustatzea (hurbileko salmenta); eta,
- **Nekazaritzako TEST espazioen** kudeaketa babestea.



ZENBAT DIRU JASO DAITEKE?

Laguntzak diruz lagundu daitezkeen **gastuen %90a** biltzen du.

Gehienezko mugak:

- **Elkarteak:** erakunde bakoitzeko gehienez 100.000€. Bazkidetutako ekoizle bakoitzeko 3.000€ oinarri kalkulatzen da (negozio-zifraren %25a gehienez).
- **TEST guneak:** gehienez 45.000€ elkarte kudeatzaile bakoitzeko.
- **Minimis erregimena:** mota horretako laguntzek ezin dute 300.000€ baino gehiago izan hiru urtean.



NORTZUK ESKA DITZAKETE?

- **Ekoizle-elkarteak:** egoitza Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta gutxienez bazkideen %25a Merkaturatze Kanal Laburren Erregistroan inskribatuta duten nekazaritza-kooperatibak.
- **TEST guneak kudeatzen dituzten elkarteak:** proba-gune hauek kudeatu eta zirkuitu laburrak sustatzen dituzten Nafarroako irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- **Kanpo:** banakako ekoizleak eta irabazi-asmoa duten elkarteak.



ZEIN GASTU DIRUZ-LAGUNTZEN DIRA?

2025/11/01etik 2026/10/31ra egindako jarduerak:

- **Sustapena:** plan estrategikoak, merkatu-azterketak, azoketan parte hartzea, sustapen-ekitaldiak eta publizitate-materialak (liburuxkak, webguneak, prentsa).
- **Merkaturatzea:** Jantoki kolektiboetan (ikastetxeak, erakundeak) eta Hurbileko Salmenta gisa inskribatutako establezimenduetan saltzeko ekintzak. Informatika-tresnak garatzea.
- **Egituraketa:** elkartuek ekoizpen primarioa egituratzeko jarduerak.
- **Kostu operatiboak:**
 - **Langile propioak:** Soldatak eta Gizarte Segurantzak (28 €/h-tik 46 €/h-ra bitarteko mugarekin).
 - **Kanpoko langileak:** zerbitzu profesionalak kontratatzea.
 - **Bidaia:** kilometrajea (0,37€/km), dietak (50 €/egun) eta ostatua (120 €/egun).



NOIZ ETA NOLA ESKATU?

- **Epea:** Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratzen denetik **hilabete** bat.
- **Lekua:** telematikoki ([esteka](#) honen bitartez).
- **Funtsezko dokumentazioa:**
 - Elkartearen IFKren eta estatutuen kopia.
 - Elkartekideen zerrenda eta negozio-bolumenaren datuak.
 - Jarduera-plana: jardueren deskribapena, egutegia eta aurrekontuak edo proforma-fakturak.
 - Kanpo-kontratu bat 12.000€-tik gorakoa bada, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu behar dira.



KONTUTAN IZAN...

- Sistema **norgehiagokakoa** da (puntuakakoa): puntu gehiago izango dituzue elkartekide asko bazarete, hauek emakumeak badira, ekoizle ekologikoak badira edo zuen ekintzak jantoki kolektiboetan eta kontsumo-taldeetara bideratzen badira.
- Laguntza emango badizuete, hilabeteko epean **gardentasun-adierazpena**, organoen osaeraren adierazpena eta ordainsariei buruzkoa aurkeztu behar dituzu, urteko azken kontuen kopiarekin batera.
- Egingo dituzuen hedapen-material guztiek **Nafarroako Gobernuaren logo ofiziala** eraman behar dute nahitaez.